

Santa Ageda Eskoriatzan

Ohitura

Santa Ageda eguna ohitura handiko jaia da Eskoriatzan, Euskal Herriko beste herri askotan moduan aspaldidanik ospatzen dena. Santa Ageda eguna otsailaren 5a da, baina jai gehienetan moduan, bezperan ematen zaio hasiera ospakizunari.

Eskoriatzan Santa Ageda jaiaren protagonistak "kintoak" dira, herrian "Santa Ageda mutilak" moduan ere ezagutzen direnak. Kintoena Españan XVII. mendean errotu zen ohitura da. 18 urte betetzen zituzten gazteek, Españako ejerzitoarekin instrukzioak egiteko derrigortasuna zeukaten eta 2001 arte mutilak kintoak izateko sistema horretan parte hartzera derrigortzen ziren.

Mutilak hautatzeko, zozketa egiten zen eta hala, bost mutiletatik bat mobilizatzen zuten, hortik dator "quinto" (bosten) berba. Euskal Herrian kinto-sistema hau 1876. urtean jarri zen indarrean, foruak galdu zirenean. Eta harrez gero euskal mutilek ere derrigorrez soldaduska egin beharra izan dute. Kinto-sistema zozketa bidezkoa zen eta zozketa horretan erabakitzen zen Españako zein egoitza militarretan egin behar zuen gazte bakoitzak soldaduska.

Urte bakoitzeko kintoek, hau da soldaduskarako zozketan parte hartzen zuten gazteek hartu zuten protagonismoa Santa Ageda egunean, aurretik zeukaten urte gogorraren aitzakian.

2001ean kendu zen soldaduskara joateko derrigortasuna, hala ere herriko gazteek tradizioari eutsi nahian eta jai bat egiteko aitzakia galdu nahi ez dutelako, eutsi egin diote ohiturari eta urtez-urte Santa Ageda eguna indarrez ospatzen da Eskoriatzan.

Santa-eskean

Festa, lehen esan bezala, otsailaren 4an hasten da, Santa Ageda egunaren bezperan. Urte horretan 18 urte beteko dituzten gazteek fraka mahoizkoak, gerriko eta txapel beltza, jertse iluna eta koloredun painelua soinean dutela, herriko baserriak bisitatzeko dituzte. Santa-eskean koplak kantatuz joaten dira elizate guztietako baserrietara, han emandakoa jaso (txorizoa, arrautzak, gazte, dirua...) eta batutakoarekin herriko taberna batean afari-merienda ederra egiten dute. Etxafuegoak izaten dituzte lagun gazteek, elizate bakoitzera iristen direnean bertan direla abisatzeko modurik onena horixe izan baita aspaldiko urteetan.

Santa Ageda eguna, otsailaren 5a, herrian ospatzen dute eta herrian ibiltzeko janzkera aldatzen dute: fraka eta alkandora zuria, alpargatak ere zuriak baina zinta gorridunak, eta gerrikoa eta txapela gorria. Lepoan, koloredun zapi handia. Kintorik zaharrenak eta gazteenak, berriz, txapela eta gerrikoa beltza ibiltzen dituzte. Hala jantzita etxez-etxe koplak kantatuz ibiltzen dira santa-eskean, trikitixak edo soinuak lagunduta. Herrian etxeak bisitatzeaz gain, lantegietan, tabernetan eta dendetan ere batzen dute dirua eta herriko ikastetxeak ere bisitatzeko dituzte, haurrei gozokiak banatuz.

Dantza

Herriko plazan dantza egiten dute kintoek 2 egunetan: lehenengoa Santa Ageda egunean izaten da eta bigarrena hurrengo domekan. Dantzaldiak 4 atal izaten ditu: desafixua, banakoa, agurra eta dantza-sueltoa.

Herriko kaleetatik atalataikoan datozela iristen dira mutilak plazara. Arratsaldeko 7etan, elizako kanpaiekin batera, etxaflero bat bota eta dantza-ekitaldiari hasiera ematen zaio. Dantza-sokaren bi puntetan dauden mutilek egiten dute hasierako dantza, desafixua deitzen zaiona eta hori bukatutakoan txistulariek banakoa jo eta mutilek banan-banan erdira irtenda banakoa egiten dute dantzan. Guztiek banakoa egin ondoren, txapel beltza duten bi mutilak (kintorik zaharrena eta gazteena) neskatan joaten dira. Lehenengo ateratzen dituzten bi neskei, desafixua dantza egin duten kintoek agurra egingo diete banan-banan. Bi neskei aureskua egin ondoren, neska gehiago aterako dituzte, mutil beste neska lortu arte. Horrela daudenean, korrua egin eta denek batera fandangoa eta arin-arina egingo dituzte dantza.



Dena bukatutakoan, eta jendearen txalo artean, berriz ere atalataikoan alde egingo dute plazatik herriko tabernaren batera, festarekin jarraitzeko.



Eskoriatzan 2006. urtera artea mutilak izan dira festa honetan protagonista. Neskak dantza saioan fandango eta arin-arinerako bakarrik ateratzen ziren edo urte batzutan trikitixa edo soinuarekin laguntza emateko. 2007. urtean atera diren kintoek, berriz, hasieratik egon dira neskak eta mutilak elkarrekin egun hau antolatzen.

Eskoriatzako Udala

Santa Águeda en Eskoriatza

Una costumbre arraigada

La fiesta de Santa Águeda presenta un gran arraigo en la villa de Eskoriatza, y se celebra desde antaño al igual que en muchas otras partes del País Vasco. La festividad de Santa Águeda ocupa en el calendario la hoja que corresponde al 5 de febrero, si bien comienza la fiesta ya de víspera.

Los "quintos" son quienes protagonizan la fiesta de Santa Águeda, más conocidos por "Santa Ageda mutilak" (mozos de Santa Águeda). La costumbre de los quintos hunde sus raíces en el siglo XVII y representa la obligatoriedad de realizar instrucción al servicio del ejército español para todos los chicos que cumplían 18 años. Esta obligatoriedad se ha mantenido hasta el año 2001.

Para la selección se hacía un sorteo de manera que uno de cada cinco mozos válidos para el servicio de armas era incorporado a filas, de ahí viene el nombre de "quinto". Este sistema de quintos se instauró en 1876, con la pérdida de los fueros. Desde esa fecha los chicos vascos también han tenido que prestar el servicio militar de forma obligatoria. Mediante sorteo los quintos recibían uno u otro destino militar.

Los quintos, es decir, los jóvenes que entraban en el sorteo, centraron la atención de la fiesta de Santa Águeda, debido a que les esperaba un año un tanto difícil.

En 2001 se aprobó la suspensión de la obligatoriedad de prestar el servicio militar; sin embargo, los jóvenes, con ánimo de mantener viva la tradición y no desperdiciar la ocasión para la fiesta, han mantenido esta costumbre y por ello la fiesta de Santa Águeda cuenta con un respaldo notable en Eskoriatza.

Santa-eskean

La fiesta estalla el día 4 de febrero, víspera de Santa Águeda. Los mozos que cumplen los dieciocho en ese año visitan los caseríos ataviados con pantalones de mahón, faja y txapela de color negro, jersé oscuro y pañuelo de colores al cuello.

Los caseríos de todas las anteiglesias reciben a los jóvenes, cantadores de coplas; éstos recogen los alimentos que se les ofrecen (chorizo, huevos, queso, dinero...) a fin de preparar una suculenta merienda. Cuando la cuadrilla de jóvenes llega a la anteiglesia se disparan cohetes y así se hace saber que los quintos han arribado.

El día de Santa Águeda, día 5 de febrero, lo celebran en el municipio y mudan su vestimenta para la ocasión: pantalón y camisa blanca, alpargatas con cintas rojas, faja y txapela de color rojo. Al cuello, un pañuelo grande de colores. El quinto mayor en edad y el más joven lucen la txapela y la faja de color negro. De este modo van de casa en casa cantando coplas y pidiendo, acompañados de la trikitixa y el acordeón. Además llegan a las fábricas y tiendas a pedir, incluso a las escuelas, donde reparten caramelos a los niños.

La danza

Los quintos bailan en la plaza del pueblo en dos ocasiones. La primera, el día de Santa Águeda, y la segunda el domingo siguiente. El baile se compone de cuatro partes: desafixua, banakoa, agurra y dantza-sueltoa.

Los mozos llegan a la plaza en atalataiko recorriendo las calles. A las 7 de la tarde, suenan las campanas de la iglesia, se tira un cohete y comienza el baile. La danza inicial corre a cargo de los danzantes de los extremos y se conoce con el nombre de "desafixua". Al finalizar éste, los txistularis tocan el banako y los mozos lo bailan de uno en uno en el centro de la plaza. Cuando todos han bailado el banako, los mozos que lucen boina negra (el quinto más joven y el más viejo) salen a por las chicas. Los dos quintos protagonistas del desafío bailan el auresku a cada una de las chicas. A continuación, sacarán a bailar a más chicas, hasta reunir tantas como chicos. En este momento se hace el corro y todos juntos bailan el fandango y el arin-arin.



Cuando el baile llega a su fin, salen de la plaza en atalataiko en dirección a alguna taberna y sigue así la fiesta.



Hasta el año 2006 la fiesta se ha centrado en la actuación de los mozos. Las chicas sólo salían a bailar el fandango y el arin-arin o acompañaban con la trikitixa y el acordeón. El año 2007 aglutina a chicos y chicas en la organización conjunta de este día dedicado a los quintos.

Eskoriatzako Udala